



OPOSAKETAK: AZKEN BERRIAK !!

Berri garrantzitsuak argitaratu dira Hezkuntza departamentuko web orrian ([ekainaren 1eko 1141/2007 ebazpena](http://ekainaren.1eko.1141/2007/ebazpena)) eta, boletin honen bidez, bertan aipatzen direnak laburki aipatzera gatzoz:

ONARTUEN ZERRENDAK

- Jada argitaratu dituzte behin betiko onartuen zerrendak (hizkuntza eta espezialitateka)
- Baita B.2 froga txostenarekin ordezkatu dezaketenen behin betiko zerrenda.

AURKEZPEN EKITALDIA

- Guztientzat **Ekainaren 22an** izango da, **arratsaldeko 5etan**. Nahiz eta espezialitate bakoitzak leku (ikastetxe) jakin batetara joan beharko duen.
- Ekitaldi honetan **PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA** entregatu beharko duzue, **soilik entregatu**.
- Oso garrantzitsua: ekitaldi honetara **pertsonalki** aurkeztu beharko duzue; ezin da inolaz ere beste pertsona bat bidali zuen izenean.

A FROGA edo "FROGA TEORIKOA"

- Guztientzat **Ekainaren 23an** izango da, **goizeko 9etan**. Nahiz eta espezialitate bakoitzak leku (ikastetxe) jakin batetara joan beharko duen.
- Froga hau egiteko, gogoratu **hiru bola** aterako direla eta bola horiei dagokien **gaietako bat garatu** beharko duzuela idatziz.
- Hiru ordu izango dituzue froga amaitzeko.

B FROGA

- Ez dute data eta lekurik finkatu oraindik froga hau burutzeko. Dena den, erne ibili beharko duzue, tribunal bakoitzak bere egutegia ezarriko baitu, eta pertsona bakoitzari hitzordu jakin bat egokituko baitzaio.
- Ez ahaztu, informearen aukera izan ez duzenok, B.1 froga (programazioaren azalpenak) eta B.2 froga (unitate didaktiko baten defentsa) biak egun berean eta jarraian egin beharko dituzuela.

(* *Ordezkapenetarako zerrendetarako baremazioan aldaketak: badakizue orain arte 4 puntu ematen zituztela oposaketak gainditzeagatik (plazarik lortzen ez zutenei, noski). Aurten ere 4 puntu emango dituzte baina honela banatuta: gainditutako froga bakoitzagatik 2 puntu. Hiru froga daudenez (1-teorikoa, 2-programazioa, 3-unitate didaktikoa edo informea), 4 puntu horiek lortzeko nahikoa izango da hiru froga horietatik bi gainditzea.*